

## **Bizkaiko Foru Aldundiak zaintza- eta gizarte-zerbitzuak gehitu ditu Abadiñon**

Bizkaiko Foru Aldundiak egokitu du Abadiñon antolatuta zeukan zainketa zerbitzuen eskaintza, lurralde horretako egungo gizarte-premiei erantzuteko.

Hasiera batean, mendekotasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza-zentro berria sortu nahi zen. Baina proiektua aldatu egin da osasun mentarekin arazoak dituzten pertsonen eta desgaitasuna duten pertsonen beharrei ere erantzuteko.

Zehazki, Abadiñoko etorkizuneko zentroak 3 eremu nagusi izango ditu honelako zaintza-zerbitzuak eskaintzeko:

- **60 egoitza-plaza mendekotasuna duten adinekoentzat.**  
Espazio hori 3 etxebizitza-gunetan banatuko da.
- **40 egoitza-plaza gaixotasun mentala duten pertsonentzat.**  
Espazio hori etxebizitza-gunetan banatuko da.  
3 plaza gordeko dira pertsona batzuk aldi baterako egon daitezen, eta pertsona horien familiek atseden har dezaten.
- **25 plaza eguneko arreta zentro batean desgaitasun intelektuala edo garapeneko desgaitasuna dutenentzat.**  
Horrela, ez dira egunero beste herri batzuetako zentroetara joan beharrik.

**Egoitza:** pertsonen etxebizitza izateko prestatutako tokia.

Proiektu honetan 20 milioi euro baino gehiago inbertituko dira.

Zentro hau bizikidetzeta eta ingurunearekiko errespetua sustatzeko gune bezala pentsatuta dago.

Eraikin bereziak egongo dira eta kanpotik beste pertsonekin partekatuko diren gune komunekin lotuta egongo dira.

## Lan bateratua

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Abadiñoako Udalak elkarrekin lan egin dute proiektu hau gauzatzeko beharrezkoak diren izapideak egiten.

Proiektuaren plangintza egiteko azterlan teknikoak eta ingurumen-inpaktuari buruzko azterlanak egin dira, eta udalaren **hirigintza**-arauei jarraitu zaie.

Zentroa eraikitzeke lanak 2025eko ekainean amaitzea aurreikusten da.

Elixabete Etxanobe Bizkaiko Ahaldu Nagusiak Mikel Urrutia Abadiñoako alkatearekin batera aurkeztu du proiektua.

Etxanobek nabarmendu du proiektu hau aurrerapauso handia dela, arreta-eredu pertsonalizatuagoa, inklusiboagoa, egokituagoa eta komunitatearekin lotuagoa eskaintzen duelako.

Bestalde, Urrutiak adierazi du lan sakona egin dutela irisgarritasuna hobetzeko eta zentro hori udalerriko espazioan eta bizitzan sartzeko proiektua jaso zutenetik.

**Hirigintza:** herritarren bitzeta hobetzeko, udalerriko eraikinak eta espazioak antolatzeke modua arau batzuei jarraituz.

## **Komunitatean integratutako zentroa**

Bizkaiko Foru Aldundiak eta Abadiñoko Udalak erabaki dute udalerrian bizi diren pertsona guztiek parte hartuko duten zainketa-eredu bat abian jartzea.

Horrela, zentro berria Abadiñon bizi diren herritarren eguneroko bizitzaren parte izango da.

Hainbat profileko pertsonak osatutako lan-mahaia sortuko da estrategiak bilatzeko komunitateak zainketa-ereduan parte har dezan eta zentro berriko pertsonak udalerriko bizitzaren parte izan daitezen.